

25 URTE SUSTRAIAK ZABALTZEN

CALASANZEN AZTARNAK 25 URTEZ

Karismatik misio eraldatzaileran Itaka Escolapios-en bidez

(Senidego Eskolapioan dauden helduentzako leZ proiektua)

SARRERA:

Proiektu hau Itaka Escolapios-en aurtengo Elkartasun Kanpainaren barruan kokatzen da, fundazioak aurten ospatzen duen 25. Urteurrenarekin batera. Eskolako Senidego laiko helduei zuzenduta, Ikaskuntza eta Zerbitzu metodologia aplikatu nahi da oraingo honetan. Calasanzeko San Joseren "Piedad y Letras" lemari eta fundazioaren lanari buruzko gogoeta eginez, gure ezagutza zerbitzu zehatz eta jasangarriko ekintza bihurtuko ditugu, Itakak munduan dituen proiektu aktiboak ikusarazi eta indartuz.

JUSTIFIKAZIOA:

Proiektu hau komunitate heldu eta laikoak Itaka Escolapios-en 25. urteurrenaren ospakizunean rol aktibo eta kritikoa bere gain hartzeko beharretik sortu da. leZ honekin esker ona adierazi eta sareak 30 herrialde baino gehiagotan lortu duen eragin eraldatzaileari buruzko hausnarketa egitera ere bultzatzen du. Hezkuntzan eta ahulentzako zerbitzuan datzan karisma eskolapioa oinarri bezela hartu eta Senidegoaren esku hartze proposamena egiten da, "Piedad y Letras" leloa gaurkotu eta bizitzeko erronka hartuz, pobrezia berrien testuinguruan.

leZ metodologia bereziki egokia da, gure errealitate eskolapioko helduen bizi- eta prestakuntza-esperientzia aberatsa kapitalizatzen baitu, eta ITAKA (hausnarketa edo "Letras") proiektuen errealitateari buruz lortutako ezagutza berehala laguntza-ekintza esanguratsu (zerbitzua edo "Piedad") bihurtzeko aukera ematen baitu, konpromiso sozial heldu eta aktiboa sustatuz. Helburua, elkartasun kanpaina diru bilketa batera ez mugatzea da, baizik eta konpromiso iraunkorra sortzea, Calasanzen "argi, bake, justizia eta itxaropen bideak irekitzea" helburu izango duena.

25 URTE SUSTRAIAK ZABALTZEN

HELBURUAK:

- **Orokorra:** Komunitate, Senidego edo eskolapio talderen batetik **ESKOLAPIOEN OBRA** eraldatzeko misioarekin lankidetzan aritzen diren helduen aberastasunaren konpromisoa indartzea da, leZ metodologia erabiliz. Hausnartu, 25 urteko zerbitzurako esperientziaren parte izan eta kontzientzia hori laguntza ekintza espezifikoa eta iraunkor batean bihurtzea da helburu nagusia.
- **Espezifikoak:**

IKASKUNTZA: Itaka Escolapios-en lanak azken 25 urteetan izan duen eragina modu kritikoan aztertzea, bere proiektuen erronkak eta arrakastak identifikatuz.

ZERBITZUA ETA ERRUKIA:

- Zerbitzu ekintza zehatz bat diseinatu eta ezartzea, balio estrategiko handikoa eta baliabide gutxi behar dituena. Itakaren proiektu baten behar espezifikoa bati erantzun dio, helduen komunitatearen giza baliabideak eta baliabide materialak mobilizatuz.
- 25. urteurrenari buruzko sentsibilizazio-materialak sortzea (konparazio taulak, infografiak), Itakaren lana ikusarazteko eta "elkarlanaren kultura" eta senidego unibertsala sustatzeko tokiko ingurunean.

25 URTE **SUSTRAIAK** ZABALTZEN

GARAPEN-EREMUAK:

Proiektuaren helburua Senidego eskolapioan ditugun helduak ere Itakako kanpainan inplikatzeko da. Eskolapioen ikastetxe eta fundazioarekin modu aktiboan parte hartuz, Calasanzen ikuspegi humanista eta ebanjelizatzailetik.

- Dimentsio sozial eta komunitarioa: Gizartean anaitasun eta adiskidetasuna sustatzea, lankidetzaren eta sare-lana bultzatuz, egin beharreko jardueren aurrean errespetuzko elkarrizketa integrala eginez.
- Dimentsio etikoa: “Piedad y Letras” lemarekin oinarriak gure erabakietan integratzea, espiritua identifikatu eta zerbitzurako konpromisoa indartuz, misio eta bokazio laiko indartsuagoa garatuz.
- Dimentsio Kognitiboa eta Kritikoa: Pentsamendu Kritikoa garatzea, helduari gizarte-arazoak sakon aztertzeke eta bere esperientziatik konponbide sortzaile eta eraldatzaileak proposatzeko leku bat emanez.

25 URTE **SUSTRAIAK** ZABALTZEN

GARATZEKO GAITASUNAK:

Jardueren dinamikan pentsatu dugu, eskolapioetako probintzia bakoitzaren errealitatean eta dinamikan parte hartzen duten helduek, zerbitzu kontziente baterako beharrezkoak diren tresnak sor ditzaten:

1. Zerbitzu Lidergoa: Beste batzuk gidatu eta motibatze gaitasuna, norberaren eta behartsuenen zerbitzura esperientzia eta talentuak jarritz.
2. Errealitatearen azterketa eta diszernimendua: testuinguruaren azterketa eta berrikuspena eta inpaktua zentzu kritikoz sustatzeko tresnak erabiltzeko trebetasuna.
3. "Pietatea eta Letrak" koherentzia karismatikoa: hausnarketa teologikoa eta espirituala (Pietatea) ekintza sozial, kultural eta profesionalarekin (Letrak) integratzea, zerbitzua fede-testigantza izan dadin.
4. Itxaropenerako komunikazioa: ITAKAren proiektuen errealitatea komunikatzeko gaitasuna, arrakasta historiak eta lortutako eraldaketa nabarmenduz, tokiko komunitatea elkartasunerantz mugituz.
5. Konpromisoaren Kudeaketa Iraunkorra: Dauden baliabideekin denboran zehar iraun dezaketen zerbitzu-ekintzak diseinatzeko trebetasuna, horien gauzatzea eta ebaluazioa planifikatuz.

SEKUENTZIA DIDAKTIKOA:

Astea	Saioa	Jarduera	Helburua	KONPETENTZIAK	Materiala	Azken Produktua
1-2	1	Data historikoen tailerra: "25 urte bidean elkarrekin" ikerketa hauek bideratuko ditugu: Calasanzeko San Joseren bizitza, ITAKA fundazioa eta honek sostengatzen dituen 4 proiektu mota (jangelak, eskolak...). Fitxa teknikoak erabili.	IKASKUNTZA	Errealitatearen Analisi Kritikoa, "Piedad y Letras" lema-ko koherentziaren azterketa.	ITAKAren fitxa teknikoak, ITAKAren Internet/Weberako sarbidea, Mapamundi.	ITAKAko 4 proiektu moten konparazio-taula: Herrialdeak, onuradunak, Behar nagusia.
3-4	2	leZ diagnostikoa - Zerbitzu arrakala: ITAKAk dituen proiektuen zerrenda sortzea, hauek identifikatu eta ezagutzeko. Hauen azterketa egingo dugu ea esku bat bota dezakegun analizatuz (lagundu dezakegun "pobrezia" dagoen ikusiz).	ZERBITZUA	Errealitatearen Analisia eta Diszernimendua, Zerbitzu Lidergoa.	Baliabide komunitarioen zerrenda (Talentuak, Sareak, Materialak), ITAKAren beharren txostenak.	Zerbitzu-arrakalaren diagnostikoa (Lagundu beharreko proiektuaren definizioa eta zerbitzu mota) tokian bertan.
5-6	3	Ekintza Diseinuko Tailerra: "Calasanz azterna gure zerbitzuan" Plangintza Zehatzeko Taula erabiltzea (SMART), zerbitzu espezifikoaren ekintza diseinatzeko, gutxieneko rolak, epeak eta baliabideak definituz.	ZERBITZUA	Konpromisoaren Kudeaketa jasangarria, Zerbitzu Lidergoa.	Smart Plangintza, arbela, prototipoetarako diseinu-materiala (digitala edo fisikoa).	Zerbitzuaren Proposamenaren ezaugarriak (SMART Plana): Zerbitzu-ekintzaren diseinua (adib. proiektu espezifikoa baterako babes-kanpaina digitala sortzea).
7	4	Konpromisoa eta difusioa: 25.urteurrenari buruzko konpromiso komunitarioaren manifestu bat sortzea eta zabaltzea . Ikaskuntzaren eta zerbitzuaren emaitzak bateratu.	IKASKUNTZA ETA ZERBITZUA	Itxaropenerako eta Konpromiso sozialerako komunikazioa.	Manifestu-eredua (digitala/fisikoa), Difusiorako bideak (sare sozialak, parrokiak...).	Diseinatutako zerbitzu-ekintzaren konpromisoa eta zabaltze formalaren adierazpen komunitarioa.

25 URTE SUSTRAIAK ZABALTZEN

JARDUERA OSAGARRIAK:

Ordubeteko 3 jarduera proposatzen dira saioen artean egiteko, "piedad y letras" leloa indartzeko.

A. Cineforum: "La Esperanza en la Educación Popular"

- **Deskribapena:** Herri eskola baten, helduen alfabetatze zentro baten edo garapen bidean dagoen herrialde bateko jangela komunitario baten errealitatea erakusten duen dokumental edo laburmetrai bat ikustea (30 minutu ingurukoa).
- **Beharrezko materiala:** Proiektorea/pantaila, testuinguru ahuletako hezkuntzalanari buruzko film labur bat (idealena Itakarena izatea litzateke), ondoren, taldean galderak erantzun eta eztabaida sortu (adib.: "Non ikusten dituzu Errukia eta Letrak errealitate horretan?", "Nola islatzen da giza duintasuna?").
- **Azken produktua: Hausnarketarako poster bat.** Eztabaidatik ateratako 3 esaldi nagusiak erabiliz, komunitatearen espazioa apaintzeko balio duen posterra izango da.

B. Elkarrizketa birtuala: "La Voz de la Misión"

- **Deskribapena:** 45-60 minutuko topaketa birtuala (Zoom, Meet) antolatzea, gaur egun Itakaren proiektuetako baten ardura duen pertsona batekin (Eskolapioa edo laikoa).
- **Beharrezko materiala:** Itaka plataforma birtualeko arduradun batekin harremanetan jartzea eta gure galderak egingo dituen moderatzaile bat izatea. 5 galdera sakon prestatu beharko ditu helduen komunitateak (logistika, iraunkortasuna, inpaktu sozio-kulturala).
- **Azken produktua: Txosten labur bat.** Egindako elkarrizketatik atera diren 5 puntu nagusiak azaltzen dituen txostena, non sareko lanari eta proiektu horren tokiko errealitateari buruzko informazioa emango den. Txosten hau komunitate osoarekin partekatuko da.

C. Irakurketa ozena eta elkarrizketa: "Frantzisko Aita Santua eta zerbitzua"

- **Deskribapena:** Frantzisko Aita Santuaren entziklika baten zati bat irakurtzea (adib. *Fratelli Tutti* edo hezkuntzari buruzko diskurtsoa), eta, ondoren, talde-hausnarketa bat, "Lectio Divina" dinamikarekin edo testuak zerbitzu zehatzerako dituen ondorioei buruzko elkarrizketarekin.
- **Beharrezko materiala:** Aukeratutako testuaren kopia (gehienez orrialde batekoa izan dadila), eta hausnarketarako espazio bat.
- **Azken produktua: Taldeak sortzen duen Otoitz Komunitarioa.** Aita Santuaren hitzetan oinarritutako zerbitzu-ekintzan iraunkortasuna eta koherentzia mantentzeko eskaera eginez.